

Etiopia Utopia Fundazioa Tikal, irabazi asmorik gabeko erakunde bat da eta haien helburua Etiopiako eta, bereziki, Tigray eskualdeko komunitate behartsuenen bizi-baldintzak hobetzea da. Horretarako, gure gizartea sentsibilizatzen saiatzen dira eta garapen jasangarriko proiektuak kudeatzen dituzte dagokien zehaztasun eta ezagutzarekin.

17 ETIOPIA UTOPIA FUNDAZIOA TIKAL-ekin solasean:

- Badakizu zer, Ane? Gure zilborretatik harago mundu oso bat dago. Eta mundu zatitxo horietako bat da Etiopia.
- Utopia?
- Bai, txikitik eraginez, utopiak errealitate bihurtzen diren Afrikako tokia da Etiopia.
- Lehenago kontatu didazu nola bihur daitezkeen utopiak errealitate... Euri urarentzako biltegiak eta ubideak eraikitzea izan daiteke modu bat.
- Edo Mekeleko ospitalerako materiala lortzea.

- Edo bertako emakumeekin batera hilekoaren inguruko lanketa egitea, emakume taldeak sortuz gaiaren inguruan hitz egin dezaten.
- Utopia aurrera egiteko modu bat da.
- Eta nola esaten da Etiopian “eskerrik asko”?
- Eskerrik asko? Yakanielle!
- Yakanielle, orduan, Lea.
Yakanielle zuri, eta Etiopia Utopiako bolondres-sare osoari!



**UTOPIA ETA ERREALITATEA
ESKUTIK JOAN DAITEZEN**

18 MUNDU BAT NON

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Ane Labaka Mayoz

Ahotsak: Demode Quartet

Zer ote utopia?

Urrun dagoen geltokia. Edonor sartzen den tokia.

Sare, gorputz adarrak sare, zatoz, eseri parez pare.

Sare, auzolanezko sare, zatoz, (e)ta entzun parez pare.

Zer ote utopia?

Gure ametsen geltokia. Edonor hartzen den tokia.

Sare, gorputz adarrak sare, zatoz, hitz egin parez pare.

Sare, bolondresezko sare, zatoz, eraiki parez pare.

Mundu bat non ubide oro dihoan libre,

leku bat non zartatutako lurak diren uraren bide.

Mundu bat non kulero batzuk odolduz gero,

leku bat non eroso eta lasai hortaz mintzatu gero.

Mundu bat non hortz-hagin garbiekin eragin,

leku bat non mintzen gaituen hori irri bihurtu dadin.

Mundu bat non elkarrekin amets urrunenei ekin.